

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

SEGURTASUN SAILA

2498

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 16koa, Segurtasuneko sailburuordearena eta Segurtasun Sailko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez iragartzen baita noiz jarriko den Gurenet atarian 2023ko maiatzaren 15eko Ebazpena, Ertzaintzako lanpostuak izendapen askearen eta berariazko merezimendu lehiaketa sistemen bidez betetzeko prozeduran emana (C247, C248 eta C249).

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen eta Segurtasuneko sailburuordearen 2022ko abenduaren 5eko Ebazpenaren hirugarren ebazpen-zatian ezarritakoarekin bat etorriz –ebazpen horren bidez, Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko deialdia onartu eta argitaratzen da–, eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarilaren 19ko 6/2021 Dekretuak ematen dizkiguten eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Argitara ematea 2023ko maiatzaren 15ean jarri dela Segurtasun Sailaren Gurenet atarian Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen eta Segurtasuneko sailburuordearen 2023ko maiatzaren 15eko Ebazpena. Ebazpen horren bidez, izendapen askeko sistema duten lanpostuak esleitzen dira, 2022ko abenduaren 5eko Ebazpenaren bidez deitutako lanpostuak behin betiko betetzeko prozeduran (C247).

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 16a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MIREN GOITIA GABIOLA.

Segurtasuneko sailburuordea,
RODRIGO GARTZIA AZURMENDI.